

EUSKAL AZENTUARI BURUZKO ESKAKIZUN ETA PROPOSAMENA

Gasteiz, 1981-XI-27

*Fr. Luis Villasante
Euskaltzainburua*

Hau da gaur goizean tratatu behar den gaietarik bat. Aspaldidanik dago Euskaltzaindian Bilbo zaharreko euskal irakasle talde baten eskea. Euskaraz mintzatzean erabili behar den azentuari buruz lege edo orientabide batzuk eskatzen dizkigute. Baina oraindik ez zaie erantzunik eman.

Irakasle horiek diotenez, zer gertatzen ari da? Euskaldun berriek gaztelaniaz erabiltzen den azentu berbera enplegatzen dute euskaraz. Eta hori "euskara kulto"tzat jotzen omen da, gainera. Eta euskaldunek —sortzez euskaldun direnek, alegia—, euskara batua arrotz eta estrainiotzat jotzen baldin badute, horrexegatik omen da, neurri batean behintzat: entzuten duten azentu hori arraro eta bitxi egiten zaielako.

Bai. Azentuari eta ebakiera moldeari ez zaio gure artean kasu gehiegi egin: irakaskuntzan esan nahi dut. Euskaldunak hori berez dakielakoan edo, horren beharra ez da ikusi. Gogoan dut Suzuko Tamurak Leioan esana. Bera ibilia zen euskaraz ikasten, bai Iparraldean eta bai Hegoaldean. Eta akats hau salatzen zuen: zer moduz pronuntziatu behar den —azentua, doinua, ahoskatzea etab.— ez zirela irakasten. Eta gero zer pasatzen zen? Iparraldekoek frantsesa eta Hegoaldekoek espainola bezala ahoskatzen zutela euskara. Eta bitartean denbora guztia gal aditzarekin. "Aditza, beti aditza", esaten zuen. Ez ote du euskarak ahoskatze modu bat berea? Eta bat baino gehiago baldin badu, ez ote da ordua heldu bat hartu eta hura gomendatzeko? Bestela, aldameneko hizkuntzek ito behar gaituzte.

Gainera, orai euskal telebista eta irratiak indar hartzen badute, arrisku berria izango dugu. Horietako hizlariak ahoskatze eta azentu txarra erakusten badute eta jendeak hori kultotzat eta eredutzat hartzen badu, izurritea zabalduko da. Izan ere, jende arruntak horien moldeak ispilutzat hartzen ditu.

Espezialistei bagazozkie —hor da Mitxelena-ren FHV— azentua euskarari oihan beltza dela ohartzen zara.

Mitxelenaren obran 4 azentu suerte bereizten dira:

- 1) Erdi eta mendebal aldekoa;
- 2) Zuberoako euskalkiarena;
- 3) Irun, Hondarribia eta Nafarroako bost hirietakoa;
- 4) goi-nafarrarena, bereziki Hegoalderunzkoa.

Segur aski, xehetasunetan sartzen bagara, bada oraino berezitasun gehiago.

Ez naiz espezialista, baina badirudi Erdi eta Mendebal aldeko multzo hori hartu beharko litzatekeela, duen garrantziagatik, hori erakutsi eta zabaldu. Baina jakina, hemen espezialisten aholkua behar dugu.

Ez dakit, baina azentua eta doinua, hots, entonazioa, uste dut ez direla gauza bera. Hizkuntza bakoitzak bere entonazio berezia izan ohi du. Zein da euskarari dagokiona? Hori erabaki gabe dugu. Oskillasok bere azken liburuan *El Vasco de hoy. Navarro-guipuzcoano y euskara batua*, 3 bolumina, aparteko arduraz aztertzen du euskararen doinua. Izan ere, hizkuntza biziak arrotzei irakasteen hori ere irakatsi behar zaie.

Azentuaz eta doinuaz gainera, badira ahoskatze kontuan aidean ditugun hari mutur asko, lotu beharrekoak.

Adibidez:

- Euskarazko “z” eta “s”ren ahoskatze zuzena.
- “tz” eta “ts” nola berezi eta ahoskatu.
- “Ez zion”, “ez gara” eta holakoek elkar jotzean nola ebaki.
- “J” nola ahoskatu.

– Maileguzko hitz batzuetan, hala nola, *soziologia, liturgia, higieine, general*, “g” hori (inoiz “j” ikusten da idatzirik) nola ahoskatu.

– Maileguzko hitz batzuetan ikusten da inoiz “x” eta inoiz “s” eta bai “ts” ere idatzirik. Adibidez: *explikatu, examina, exenplu...* Lehenik, nola idatzi behar dira hitz horiek? “X”kin idaztekotan, nola ahoskatu behar da “X” hori?

– “H”, hemen Hegoaldean ere ahoskatu behar da, ala idazteko soil-soilik utzi? Gaurkoz hobe izango da, nik uste, idazteko bakarrik uztea.

– Maileguzko hitz askotan, euskara zaharrari jarraituz, batzuek “u” bukaera hobesten dute, baina beste batzuek diote hori euskara zaharraren legea dela, baina ez gaurkoarena. Adibidez, *azentu* behar da esan (eta idatzi) euskaraz, ala *azento*? *Katoliko* ala *katoliku*, *exenplu* ala *exenplu*, *adjetibu* ala *adjetibu*, etab. Mailegu zaharretan errespetatu beharko da tradizio zaharra, baina eta berrietan?

Ikusten denez, gauza asko eta asko ditugu zalantzan. Ez bakarrik aho-
katze kontuan, baita idazte kontuan ere. Nik hemen aipatu ditudanak baino
gehiago, noski.

* * *

Datozkion eskabideei ahal duen neurrian erantzun behar die Euskal-
tzaindiak. Gauzok ongi estudiatu gabe badaude, estudio horiek bultzatu eta
ez beti gauzak geroko luzatu.

Guztiok dugu gogoan Dialektologiazko lezio haiek, aurten Deban egi-
nak. Juan Jose Mogelen mendeurrenaren aitzakiaz egin ziren. Datorren
urtean, berriz, haren arreba Vicentaren mendeurrena dugu. Hau Azkoitian,
eta Ekaineko hilabetean, jaio zen. Amigos del País-koei etxea eskatuz, zerga-
tik ez egin bi edo hiru eguneko bilerak gai hauek aztertzeko? Eta gero, azter-
keta horien fruitu bezala, Euskaltzaindiak argibide batzuk emango lituzke
—beharbada probisionalak— batez ere irakaskuntza eta komunikabideen
munduan dabiltzanentzat.

Konprenitzen dut Ekaina garai txarra dela irakasle direnentzat. Mendi-
bururen mendeurrena ere bada heldu den urtean. Dena dela, garai batean edo
bestean, toki batean edo bestean, ez du hainbeste axola. Kuestioa da premiei
erantzuten saiatzea.

Zer deritzozue?

* * *

Oharra: Lerro hauek idatzi eta, Knörr euskaltzain jaunaren eskutitza izan dut. Asmo hau
aurrera eramatearen alde azaltzen da gogotsu.